Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua
Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias

# DBHko IKASTETXEETAKO IRAKASLEENTZAKO BIZIKLETA MUGIKORTASUNAREN GAINEKO IKASTAROEN DEIALDIA

Zuzendari jaun / andre agurgarria:

Idazki honen bitartez jakinarazi nahi dizut Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde honetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikastetxeetako irakasleentzako bizikleta mugikortasunaren gaineko ikastaroen deialdia egin duela.

## Ikastaroen helburua

Ikastaroen helburua izango da irakasleak ikuspegi teoriko-praktikotik trebatzea, haiek honako gaietan gauza izan daitezen:

- DBHko ikasleak bizikletan segurtasunez ibiltzen irakasteko.
- Bizikletaren mantentze-lanen gaineko oinarrizko aholkuak eskaintzeko.
- Herri edo hirietan bizikletan modu seguruan ibili eta aparkatzeko aholkuak emateko.
- Bizikletaren erabilera DBHko ikasleen artean sustatzeko, ikastetxera joateko edota eguneroko joan-etorrietarako.

## Tokia

Ikastaroak DBHko oraindik zehaztu gabe dauden Donostialdea eta Debagoieneko bi ikastetxeetako instalazioetan izango dira.

Toki zehatzak aldez aurretik jakinaraziko zaizkie onartutako lagunei.

## Ikastaroen eskaintza

Bi ikastaro egitea aurreikusten da hasiera batean. Ikastaro bakoitza egingo da baldin eta gutxienez 8 eskaera aurkezten badira.

Ikastaro bakoitza 3 saiotan banatuko da (4 orduko 2 saio eta 2 orduko saio bat) eta bertan 15 irakasleentzako tokia izango da, asko jota.

Ikastaroetan parte hartzeko eskaerak kopuru hori baino handiagoa izanez gero, aurreikusitako eskaintza handitzea aztertuko litzateke.

## Egutegia

1. Donostialdeko ikastaroa:

   - Urriak 6, 08:30etatik 12:30etara.
   - Urriak 7, 08:30etatik 12:30etara.
   - Urriak 14, 16:00etatik 18:00etara.

2. Debagoieneko ikastaroa:

   - Urriak 15, 08:30etatik 12:30etara.
   - Urriak 16, 08:30etatik 12:30etara.
   - Urriak 21, 16:00etatik 18:00etara.

## Hizkuntza

Ikastaroetako hizkuntza euskara izango da.

## Eskatutako baldintzak

Aipatutako ikastaro batean parte hartzeak ikastetxeari ekarriko dio bertan lortutako gaitasuna gauzatzeko 2015-2016ko ikasturtean 3 saio egiteko eta ibilaldi bat herrian barrena egiteko konpromisoa hartzea, DBHko gela batekin gutxienez.

Halaber, saio horietan jasotako emaitzen gainean Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuko dien informazioa emateko konpromisoa hartuko dute, trebakuntza programa hau ebaluatu ahal izateko.

Parte hartzaileek nork bere bizikleta eta kaskoa eraman beharko dituzte.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du izango parte hartzaileek ikastaroa irauten duen bitartean jasan dezaketen edozein motatako kalte edo lesioen erantzukizunik.

## Izen ematea

Eskainitako edozein ikastarotan parte hartzeko eskaerak idazki honi erantsitako izen-emate orria betez aurkeztu beharko dira.

Izena emateko epea 2015eko martxoaren 27ra arte zabalik egongo da.

Ikastetxe bakoitzak irakasle baten izena baino gehiago eman dezake, baina eskainitako tokien kopurua gaindituko balitz aukera hori lagun batera murriztuko litzateke.

Ikastaroetan parte hartzeko eskaerak eskainitako tokien kopurua gaindituz gero, eta eskaintza ez handitzea erabakiko balitz, behin betikoz onartuko diren lagunak zozketa baten bitartez aukeratuko dira.

## Matrikula

Matrikula doakoa da.

Edozein zalantza sortuz gero, jar zaitez harremanetan Edorta Bergua jaunarekin (ebergua@gipuzkoa.eus / 943 112 166).

Aldez aurretik zure arreta eskertuz, eta eskaintza hau zure interesekoa izango delakoan, adeitasunez agurtzen zaitut.

Donostian, 2015eko martxoaren 3an

**Larraitz Ugarte Zubizarreta**
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako foru diputatua

# CONVOCATORIA DE CURSILLOS SOBRE MOVILIDAD CICLISTA PARA PROFESORADO DE CENTROS DE ESO

Estimada Sra. Directora:
Estimado Sr. Director,

A través de este escrito deseo informarle que la Diputación Foral de Gipuzkoa convoca una oferta de cursillos sobre movilidad ciclista, dirigidos al profesorado de centros de Educación Secundaria Obligatoria (ESO) de este territorio.

## Objetivo de los cursillos

Estos cursillos tienen por objetivo formar al profesorado desde un punto de vista teórico-práctico, para que sea capaz de:

- Enseñar al alumnado de ESO a andar en bicicleta con seguridad.
- Ofrecerle consejos básicos de mantenimiento de la bicicleta.
- Aconsejarle sobre cómo moverse en bicicleta por entornos urbanos y aparcar con seguridad.
- Fomentar el uso de la bicicleta entre el alumnado de ESO, para sus trayectos a los centros educativos o en sus desplazamientos cotidianos.

## Lugar

Los cursillos se impartirán en las instalaciones de dos centros de ESO, aún por determinar, de las comarcas de Debagoiena y Donostialdea.

Los lugares exactos se comunicarán con la debida antelación a las personas admitidas.

## Oferta de cursillos

Se prevé, en principio, la realización de dos cursillos. Cada cursillo se llevará a cabo siempre y cuando se reciban, al menos, 8 solicitudes.

Cada cursillo está compuesto de 3 sesiones (2 sesiones de 4 horas y otra de 2 horas), y podrán participar un máximo de 15 profesoras/es.

En el supuesto de que la demanda a los cursillos superara esta cantidad, se estudiará la posibilidad de ampliar la oferta inicialmente prevista.

## Calendario

1. Cursillo en Donostialdea:

   - 6 de octubre, de 08:30h. a 12:30h.
   - 7 de octubre, de 8:30h. a 12:30h.
   - 14 de octubre, de 16:00h. a 18:00h.

2. Cursillo en Debagoiena:

   - 15 de octubre, de 08:30h. a 12:30h.
   - 16 de octubre, de 08:30h. a 12:30h.
   - 21 de octubre, de 16:00h. a 18:00h.

## Idioma

El euskera será el idioma en el que se impartirán los cursillos.

## Requisitos exigidos

La participación en alguno de estos cursillos conlleva el compromiso del centro educativo correspondiente a llevar a cabo durante el curso escolar 2015-2016, un mínimo de 3 sesiones con, al menos, un aula de algún curso de ESO, y un recorrido a través de la localidad, a fin de poner en práctica la capacitación adquirida.

Asimismo, el centro asumirá el compromiso de proporcionar la información que la Diputación Foral de Gipuzkoa le requerirá sobre los resultados obtenidos en dichas sesiones, a fin de poder evaluar este programa formativo.

Las/os profesoras/es participantes deberán llevar su propia bicicleta y casco.

La Diputación Foral de Gipuzkoa no se hace responsable de los daños o lesiones de cualquier tipo que las personas participantes se pudieran provocar durante la realización del cursillo.

## Inscripciones

Las solicitudes para participar en alguno de los cursillos ofertados deberán realizarse cumplimentando la ficha de inscripción que se adjunta a este escrito.

El plazo para entregar las fichas de inscripción finalizará el día 27 de marzo de 2015.

Cada centro podrá inscribir a más de un/a profesor/a, si bien en el caso de que se superara el total de plazas ofertadas, esta opción se limitaría a una persona.

En el supuesto de que las solicitudes recibidas superaran el total de plazas ofertadas, y se decidiera no ampliar la oferta, la selección de las personas finalmente admitidas se realizará por sorteo.

## Matrícula

La matrícula es gratuita.

En caso de que le surgiera cualquier duda, no dude en contactar con el Sr. Edorta Bergua (ebergua@gipuzkoa.eus / 943 112 166).

Agradeciendo de antemano su atención, y esperando que esta oferta sea de su interés, le saluda atentamente.

Donostia, 3 de marzo de 2015

**Larraitz Ugarte Zubizarreta**
Diputada foral de Movilidad e Infraestructuras Viarias

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua
Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias

# DBHko ikastetxeetako irakasleentzako bizikleta mugikortasunaren gaineko ikastaroetan izena emateko orria

# Ficha de inscripción en los cursillos sobre movilidad ciclista para profesorado de centros de ESO

| **Ikastetxearen datuak**<br>Datos del centro educativo | | |
|---|---|---|
| **Ikastetxearen izena:**<br>Nombre del centro: | | |
| **Helbidea:**<br>Dirección: | **Zbkia:**<br>Nº: | **Herria:**<br>Localidad: |
| **P.K.:**<br>C.P.: | **Telefono zbkia:**<br>Nº de teléfono: | **Posta elektronikoa:**<br>Correo electrónico: |

| **Irakaslearen datuak (1)**<br>Datos del/ de la profesor/a | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak:**<br>Nombre y apellidos: | | |
| **Telefono zbkia:**<br>Nº de teléfono: | **Posta elektronikoa:**<br>Correo electrónico: | |
| **Aukeratzen duen ikastaroa:**<br>Cursillo al que desea acudir: | Debagoiena<br>Donostia | ☐<br>☐ |

| **Irakaslearen datuak (2)**<br>Datos del/ de la profesor/a | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak:**<br>Nombre y apellidos: | | |
| **Telefono zbkia:**<br>Nº de teléfono: | **Posta elektronikoa:**<br>Correo electrónico: | |
| **Aukeratzen duen ikastaroa:**<br>Cursillo al que desea acudir: | Debagoiena<br>Donostia | ☐<br>☐ |